
5. KANALAK

Bezeroarekin edo bezero-segmentu anitzekin harremanetan jartzeko erabiliko ditugun bide nagusiak honako hauek izango dira:

Hasteko, erabaki dugu telefono harreta zerbitzua edukitzea bezeroak beraien zalantzak argitzeko. Era berean, bezeroekin harraman estua edukitzeko aukera edukiko genuke. Beraien zalantzak argitzeko beste bide bat ere aurkitu dugu, Webgune bat sortzea gazteentzako eta helduentzako erreserba bilatzaile bat egingo dugu eskaeraren informazioa guztiarekin, hau da, zerbitzuaren ezaugarriak, baldintzak, abantailak, aipatu dugun telefono zenbakia agertuko litzateke, APP-ak nola funtzionatzen duen azaltzen duen bideo bat laguntza modura ... eta abar. Webgune horretan ere txat bat egongo litzateke, horren bitartez bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal

Gure balio-proposamena bezeroari edo bezero-segmentuei banatzeko erabiliko ditugun bide nagusiak beste hauek dira:

Batetik, hasieran aipatu dugun bezala Webgunearen erabilera izango litzateke bezeroari edo bezero-segmentuei banatzeko bide nagusi bezala. Bertan lehen bezala proposamenaren informazio guztia egongo litzateke eta zalantzak argitzeko gune bat.

Bestetik, gaur egun eskaera zalabaltzeko biderik hoberena sare-sozialak dira. Sare-sozialak gehienetan gazteek erabiltzen dutenez eta gure eskaera gazteentzako denez, azkarrako enteratu lirateke informazioari edo aukera berriari buruz. Sare-sozialetan webgunearen linka jarriko genuke beraiek informazioa eskura edukitzeko.

Amaitzeko, eskuorriak buzoietan sartzea edo jende gaztea dagoen tokietan egotea promozionatzeko. Beste era bat itxarongeletan kartelak jartzea da. Eskuorriak buzoietan sartzerakoan edo itxarongelatan egoterakoan jendeak gazteentzako Gure zerbitzuaren berri izango dute beren seme-alabentzat edo bere senide gazte batzuentzat.